



**IKASLEEN LAN PLANA,
MODALITATEAREN ETA
GRADUAREN ARABERA**

Plan de cooperación de FEB

Hezkuntza Fakultateko Elankidetza plana

Ikasleen lan plana, modalitatearen eta graduaren arabera

A modalitatea: Kanpoko Praktika Akademikoak (KPA)	2
A.1 Gizarte Hezkuntzako Gradua. II. eta III. Practicuma.	2
A.1.1. Lan planaren egitura	2
Espero den produktua: Tutoreak prestakuntza proiektua baliozkotzea sinadura digitalarekin, eta Aurretiazko Memoria (azken memoriaren lehen 4 puntuak bildu behar ditu, II.-III. Practicumaren gidaren arabera)	3
A.1.2. Kronograma.....	4
A.2 Haur / Lehen Hezkuntzako gradua. II. Practicuma. Sahara modalitatea	4
A.2.1. Lan planaren egitura	5
A.2.2. Kronograma.....	5
B modalitatea: Garapenerako lankidetzarekin lotutako GRALa/MALa	6
B.1 Lan planaren egitura	6
B.2 Kronograma.....	7
C modalitatea: Kanpoko Praktika Akademikoak eta GRALa	7
1. eranskina: ebaluazio sistema	8
Parte hartzen duten ikasleen inkesta.....	8
Fakultateko tutoreen inkesta	8
Erakunde laguntzaileetarako inkesta	8

Ikasleen lan plana, modalitatearen eta graduaren arabera

Plazak esleitu ondoren, parte hartuko duten ikasleek BHFko tutore bat izango dute; tutore horrek ikasleen ikaskuntza prozesua gidatuko du eta tokiko eta/edo helmugako erakundeekin harremanetan jarriko ditu. Elankidetza Planean adierazten denez, zehaztutako prozesuetan ohikoak diren aldi eta jarduerak bete beharko dira modalitate guztietan, betiere Fakultateak bai praktika akademikoetarako, bai GRAL edo MALerako argitaratu eta onartutako gida ofizialei jarraikiz. Gainera, ikasleek tutoreen eta batzordekideen laguntza jasoko dute prestakuntzako fasean, baita osteko fase batean ere, ikasitakoa gizarteratzeko:

1. **Aurretiko fasea:** ikasturte bakoitzean programetan parte hartzen duten ikasle guztiak taldean elkartuko dira, eta helmugako proiektuekin zuzeneko konexioak egingo dituzte; saio horiek practicumeko mintegiak izango dira. Ikasleek UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoaren Lankidetzako ikastaro monografikoa (online) ere egin beharko dute. Taldeko bilkura horien helburua helmugako testuinguru sozio-politiko eta ekonomikoa aztertzea da, ikasleek zer espero jakin dezaten; era berean, lehen memoria edo esparru teorikoa egingo dute, gida ofizialen arabera.
2. **Transferentzia eta gizarteratzea:** Bai egonaldian dauden bitartean, bai itzultzen direnean, ezagutarazteko jardueretan eta jardunaldietan parte hartuko dute beste ikasle batzuekin batera eta, horretarako, mikrobideoak edo kontakizunak egin beharko dituzte, ahal izanez gero, baita topaketa sinkronoak ere, atzerrian dauden bitartean.

A modalitatea: Kanpoko Praktika Akademikoak (KPA)

A.1 Gizarte Hezkuntzako Gradua. II. eta III. Practicuma.

Lan plan honetan, nazioarteko lankidetzako esperientzietan II. Practicuma eta III. Practicuma modalitatean parte hartuko duten Gizarte Hezkuntzako Graduak ikasleen prestakuntza ibilbidea finkatzen da, bi fase osagarritan.

Eredu horretan bi etapa edo fase uztartzen dira: lehen etapan sentsibilizazioa, azterlanak eta prestakuntza akademikoa egiten dira BHFan eta, horren ondoren, bigarren fasean, atzerriko hezkuntza arloko edo arlo sozio-komunitarioko erakunde batean txertatuko dira ikasleak, esku-hartze sozialeko prozesu errealean parte hartuta. Ibilbidearen amaieran, ikasleak itzuli egiten dira eta sozializazioko fase bat bete behar dute, ikasitakoa gogoeta kritikoko eta ezagutarazteko jardueren bidez partekatuta Unibertsitateko kideekin.

A.1.1. Lan planaren egitura

I. fasea. Prestakuntza, sentsibilizazioa eta proiektuaren diseinua (II. Practicuma – BHF/Euskadi)

Fase honetan, ikasleak/ek:

- Prestakuntzako saioetan parte hartzen dute; saio horiek Fakultate bereko practicumarekin lotutakoak izan daitezke, edo nazioarteko lankidetzarekin, hezkuntza eraldatzailearekin edo giza eskubideekin lotutakoak (UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoaren Lankidetzako Ikastaro Monografikoa). Zenbait saio Fakultateko lankidetza batzordeak berak antolatzen ditu.
- Aurretiazko lan plana diseinatzeko 3 mintegi egingo dituzte tutore akademikoarekin, bai banaka, bai taldean (lehenengo saioa taldekoa izango da, bigarren topaketa helmugako proiektuarekin harremanetan, eta hirugarren mintegi edo azken bilera abiatu baino lehen izango da).

- Bi bilera egingo dituzte erakunde laguntzailearekin: lehena, ezagutzeko eta testuinguruan kokatzeko, eta bigarrena, lan plana kontrastatzeko.
- Proiektuak Euskadin bazkideren bat baldin badu, harekin koordinatzen dira, atzerrian egingo duten jarduna are gehiago egokitzeko eta erakundeak Euskadin egiten dituen jardueretan inplikatzeko.
- Helmugako erakunde edo herrialdeko testuinguru soziopolitikoak eta hezkuntza arlokoa aztertzen dituzte.
- Esku hartzeko edo behatzeko proposamenaren hasierako zirriborroa egiten dute.

Espero den produktua: Tutoreak prestakuntza proiektua baliozkotzea sinadura digitalarekin, eta Aurretiazko Memoria (azken memoriaren lehen 4 puntuak bildu behar ditu, II.-III. Practicumaren gidaren arabera)

II. fasea. Egondia nazioarteko erakundean (III. Practicuma – Lurraldean murgiltzea)

Fase honetan, ikasleak/ek:

- Hezkuntza arloko erakunde batean, erakunde sozial batean edo erakunde komunitario batean hasten dira jardunean, parte-hartzaile behatzaile gisa.
- Gizartearen eta hezkuntzaren arloetako jardura errealean laguntzen dute, erakundearen erritmo eta protokoloei jarraikiz.
- Gogoeten erregistro jarraitua egiten dute: egunkari edo oharra idatzita, bideoak grabatuta edo adostutako beste formatu batzuen bitartez.
- Jarraipena egiten dute BHFekin, eta bideokonferentzia bidez parte hartzen dute proposatutako topaketetan (taldeko 2 mintegi eta banakako 2 tutoretza saio).
- Testuinguruaren beharrak, indarguneak eta ikaskuntza garrantzitsuenak identifikatzen dituzte.
- Gizarte eta hezkuntza arloetan esku hartzeko proposamena inplementatzen dute.

Espero den produktua: Ebidentziak biltzea

- Bi mikrokontakizun grabatzea:
 - 1) Proiektu deskribatzailea
 - 2) Graduarekin lotutako ikaskuntza
 Gehienez 3 minutuko bideo horiek UPV/EHUko *onedrivera* igoko dituzte, eta editatzeko esteka tutorearekin partekatuko dute
- Prozesuko beste material batzuk.

III. fasea. Itzultzea, hausnarketa eta *feed back*

Itzuli ondoren, ikasleak/ek:

- Bizi izandako esperientzia partekatzen dute BHFko guneetan.
- Prozesua ixteko bilerak egiten dituzte tutore akademikoekin, ibilbidea ebaluatzeko.
- II.-III. Practicumaren prozesuaren Azken Memoria idazten dute, II.-III. Practicumaren gida ofizialaren formatuaren arabera.

Azken produktua: Memoria bat, azterketa kritikoa, proposamenak eta konpromiso pertsonala/profesionala jasota.

A.1.2. Kronograma

Hilabetea / Aldia	Fasea	Jarduerak	Inplikaturako eragileak	Espero den produktua
Urria	I. fasea – Erakundearen arteko kontaktua	Tutorearen eta erakunde laguntzailearen arteko lehen kontaktua	Tutorea + Erakundea	Erakundea eta egutegia baieztatzea
Azaroa	I. fasea – Sentsibilizazioa eta testuinguruan kokatzea	Lankidetzako ikasleen taldeko bilera (1. mintegia); Lankidetzari buruzko ikastaro monografikoa (UPV/EHU);	Ikasleak + Tutorea + Erakundea + Lankidetzaren Bulegoa	Gairen hasierako zehaztapenak
Abendua	I. fasea – Proiektua diseinatzea	Bigarren bilera: ikasleak-tutorea-erakundea (2. mintegia).	Ikasleak + Tutorea + Erakundea	Prestakuntza proiektua baliozkotzea (sinadura digitala)
Urtarrila – apirila	II. fasea – Nazioarteko egonaldia	Lan planaren kontrastea eta 1. memoria (3. mintegia) Behatzaile partaide gisa txertatzea; gizarte eta hezkuntza jardueretan laguntzea; erregistro erreflexiboa eta mikrokontakizunak egitea. Proposamenaren ezarpena. Euskadirekin konexioa.	Ikasleak + Erakundea + Tutorea	Prozesuaren ebidentziak (mikrokontakizunak, gehienez 3 minutuko 2 bideo)
Maiatza	III. fasea – Itzultzea eta <i>feed back</i>	Azken bilerak tutorearekin; Aurkezpen publikoa BHFn; Azken memoria idaztea (gidaliburu ofizialari jarraikiz)	Ikasleak + Tutorea + Fakultatea	Azken memoria + <i>feed back</i>

A.2 Haur / Lehen Hezkuntzako gradua. II. Practicum. Sahara modalitatea

Lan plan hori Sahara – Fronte Polisarioa modalitatean parte hartuko duten Haur Hezkuntzako/Lehen Hezkuntzako Graduko ikasleei zuzenduta dago. Ibilbide mistoa dute, hiru fase osagarritan:

- I. Bi asteko prestaketa fasea BHFan, prestakuntza jasotzeko, saharar testuingurua aztertzeko eta aurretiazko sentsibilizazioa lantzeko bileren, dokumentuen eta hastapeneko saioen bitartez.

- II. Hiru asteko egonaldi hezigarria saharar kanpamentuetako eskola batean; ikasleak tokiko testuinguruan integratuko dira parte-hartzaile behatzaile gisa eta, ikasgeletan laguntzeaz gain, ikasitakoa egunkari, elkarrizketa edo ikus-entzunezkoen bitartez jasoko dute.
- III. Horren ondoren, bi asteko fase bat Fakultatean, esperientziaren *feed back*a eman eta bizi izandakoa beste ikasle talde batzuei ezagutarazteko, aurkezpen publikoen, prestakuntzako tailerren edo sentsibilizazioko jardueren bitartez.

A.2.1. Lan planaren egitura

I. fasea. Saharar testuingurua ezagutzen hastea

Bidaiaaren aurreko asteetan, ikasleak/ek:

- Bilerak egingo dituzte Fronte Polisarioaren ordezkariekin eta tutore akademikoarekin.
- Prestakuntza saioak izango dituzte, eta materiala ikusiko dute (dokumentalak, hitzaldiak, testigantzak).

Espero den produktua: Mendebaldeko Saharako errealitate soziopolitikoari eta testuinguruari buruzko hausnarketa idaztea.

II. fasea. Egonaldi hezigarria eskola saharar batean (3 aste)

Fase horretan, ikasleak/ek:

- Tokiko ikasgeletan sartuko dira behatzaile eta laguntzaile gisa, eta eguneroko dinamika pedagogikoetan parte hartuko dute.
- Bi mikrokontakizun grabatuko dituzte:
 - 1) Proiektu deskribatzailea
 - 2) Graduarekin lotutako ikaskuntza

Gehienez 3 minutuko bideo horiek UPV/EHUko *onedrivera* igoko dituzte, eta editatzeko esteka tutorearekin partekatuko dute
- Testuingurura egokitutako proposamen didaktiko txiki bat diseinatuko dute, eta, erakundeak bideragarritzat joz gero, gauzatu egin daiteke.

Espero den produktua: proposamen didaktikoa diseinatzea + esperientziak kontatzea (mikrokontakizunak)

III. fasea. Itzultzea eta sentsibilizazioa Fakultatean (4 aste)

Bilbora itzulitakoan, ikasleak/ek:

- Prestakuntzako edo sentsibilizazioko ekintzetan parte hartuko dute beste ikasle batzuekin.
- Jarraipeneko bi bilera izango dituzte tutore akademikoarekin, azken txostena prestatzeko.

Azken produktua: Azken txostena

A.2.2. Kronograma

Hilabetea / Aldia	Fasea	Jarduerak	Inplikaturako eragileak	Espero den produktua
Urria	I. fasea – Saharar testuingurua ezagutzen hastea	Bilerak Fronte Polisarioaren ordezkariekin eta tutore akademikoarekin; prestakuntzako saioak eta materiala ikustea; testuinguruari	Ikasleak + Tutorea + F. Polisarioaren ordezkariak	Saharar errealitateari eta testuinguruari buruzko hausnarketa

		buruzko hausnarketa idatzia		
Azaroa	II. fasea – Prestakuntza espezifikoa eta diseinu didaktikoa	Bidaiaren xehetasun logistikoak; Ikuspegi pedagogikoa hautatzea; Proposamen didaktikoa diseinatzen hastea	Ikasleak + Tutorea + Erakunde laguntzailea	Proposamen didaktikoaren zirriborroa
Azaroa-Abendua	III. fasea – Egonaldi hezigarria Saharan	Tokiko ikasgeletan sartzea; Behaketa parte-hartzailea; Hausnarketen erregistroa mikrobideoen bidez; Proposamen didaktikoaren diseinua eta/edo inplementazioa	Ikasleak + Saharako eskola	Esperientzien kontakizunak + azken proposamen didaktikoa
Urtarrila-Martxoa	IV. fasea – Itzultzea eta sentsibilizazioa Fakultatean	Prestakuntzako edo sentsibilizazio ekintzak BHFn; Jarraipen bilerak tutore akademikoarekin; Azken Txostena idaztea	Ikasleak + Tutorea + Fakultatea	Practicumaren azken txostena (gida ofizialaren arabera)

B modalitatea: Garapenerako lankidetzarekin lotutako GRALa/MALa

B.1 Lan planaren egitura

Gradu Amaierako Lana (GRAL) edo Master Amaierako Lana (MAL) nazioarteko lankidetzarekin, hezkuntza eraldatzailearekin edo justizia globalarekin lotutako gai ei buruz egitea erabakitzen duten ikasleei zuzenduta dago modalitate hau. Kasu honetan, proiektu akademikoaren ikuspegia ez da lan teoriko bat idaztea soilik; aitzitik, ikerketa-ekintzako prozesu edo azterketako prozesu aplikatu gisa planteatzen da, gizarte edo hezkuntza arloko erakunde batekin batera identifikatutako benetako beharrei aurre egiteko¹.

I. fasea. Proiektua definitzea eta gaia proposatzea

Ikasleek garapenerako lankidetzarekin argi eta garbi lotutako gai bat hautatu eta proposatu behar dute Fakultateak proposamenak egiteko ezarritako epe ofizialaren barruan, eta tutorearen oniritzia izan behar dute.

II. fasea. Proiektua diseinatzea eta aurretiazko kontrastea

Egonaldiaren aurretik, ikasleek bilerak egingo dituzte tutore akademikoarekin eta erakunde laguntzailearekin, esku-hartzearen/ikerketaren metodologia edo ikuspegia zehazteko, betiere aukeratutako modalitatearen arabera.

III. fasea. Ezarpena eta informazioa biltzea

Adostutako diseinua ezarri edo kontrastatuko da, behaketen, elkarrizketen, heziketa jardueren edo beste teknika batzuen bitartez. Ekarpenak eta ikaskuntzak ere jasoko dira, mikrokontakizunen bidez.

¹ GRALa egitean, [Bilboko Hezkuntza Fakultateko Etika Araudian](#) finkatutako xedapenak hartu behar dira kontuan

IV. fasea. Ebaluatzea, idaztea eta aurkeztea

Ikasleek prozesuaren ebaluazio kritikoa egingo dute, ikaskuntzak, mugak eta hobetzeko proposamenak identifikatuko dituzte eta Gradu/Master Amaierako Lana egingo dute, Bilboko Hezkuntza Fakultatearen Gida Ofizialaren arabera.

Amaitzeko, lana aurkeztu eta defendatuko dute, Fakultateak aurkezpenak eta defentsak egiteko zehaztutako egutegi ofizialaren arabera.

B.2 Kronograma

Hilabetea / Aldia	Fasea	Jarduerak	Inplikaturako eragileak	Espero den produktua
Martxoa	I. fasea – Proiektua definitzea eta gaia proposatzea	Garapenerako lankidetzarekin lotutako gaia hautatzea; Justifikazio pedagogiko eta soziala; Tutore akademikoak baliozkotzea	Ikasleak + Tutorea	Gaia onartzea eta erregistratzea
Iraila - Maiatza	II. fasea – Proiektua diseinatzea eta aurretiazko kontrastea	Bilerak tutorearekin eta erakunde laguntzailearekin; Metodologia eta tresnak definitzea; Behin betiko lan plana	Ikasleak + Tutorea + Erakunde laguntzailea	Diseinu metodologikoa baliozkotzea
Maiatza - Uztaila	III. fasea – Ezarpena eta informazioa biltzea	Behaketak, elkarrizketak edo heziketako esku-hartzea; Ikaskuntzen erregistroa mikrokontakizunen bidez	Ikasleak + Erakunde laguntzailea	Ebidentziak biltzea
Iraila - Urria	IV. fasea – Ebaluatzea, idaztea eta aurkeztea	Emaitzen sintesia; Prozesuaren ebaluazio kritikoa; Lana Gida Ofizialaren arabera idaztea; Defentsa publikoa BHFko egutegiaren arabera	Ikasleak + Tutorea + Epaimahai akademikoa	GRALa/MALa entregatzea eta defendatzea

C modalitatea: Kanpoko Praktika Akademikoak eta GRALa

Modalitate honetan aurreko biak uztartzen dira.

1. eranskina: Ebaluazio sistema

Parte hartzen duten ikasleen inkesta

1. blokea · Informazio orokorra

Titulazioa:

Modalitatea (Practicuma/GRALa/MALa):

Helmugako erakundea/herrialdea:

Egonaldia:

2. blokea · Esperientzia baloratzea (1-5 eskala)

Esperientzia espero nuen bezalakoa izan da. ☐

Prozesu osoan Fakultatearen laguntza izan dut. ☐

Harrera erakundeak ahal zuen guztia egin zuen ni integra nendin eta parte har nezan. ☐

Gaitasun pertsonalak garatu ditut (autonomia, enpatia, egokitzea). ☐

Nire titulazioarekin lotutako gaitasun profesionalak garatu ditut. ☐

Esperientzia hau beste ikasle batzuei gomendatuko nieke. ☐

3. blokea · Galdera irekiak

Zer izan da bizi izan duzun gauzarik esanguratsuen?

Zer hobetuko zenuke hautaketako, prestaketako edo jarraipeneko prozesuan?

Gustatuko al litzaizuke rol aktiboa izatea hurrengo ikasleen sentsibilizazioan? Nola?

Fakultateko tutoreen inkesta

1. blokea · Rola eta informazioa

Titulazioa / Saila:

Lagundutako modalitatea (Practicuma/GRALa/MALa):

2. blokea · Prozesua baloratzea (1-5 eskala)

Ikasleek programarekiko konpromisoa erakutsi dute. ☐

Komunikazioa egokia izan da harrera erakundearekin. ☐

Dekanordeen arteko koordinazioa egokia izan da. ☐

Programa mesedegarria da ikasleen garapen profesionalerako. ☐

Nire ustez, planari eutsi egin behar zaio, eta zabaldu egin behar da. ☐

Galdera irekiak

Programaren zer alderdik funtzionatu dute?

Zer alderdi indartu beharko lituzke Fakultateak?

Prest egongo al zinateke etorkizuneko edizioetan tutore izaten jarraitzeko?

Erakunde laguntzaileetarako inkesta

1. blokea · Identifikatzea

Erakundearen izena:

Erreferentziako pertsona:

Hartutako ikasleen kopurua:

2. blokea · Ikasleak eta programa baloratzea (1-5 eskala)

Ikasleak behar bezala integratu ziren erakundean. ☐

Esleitutako zereginetan erantzukizunez eta konpromisoz aritu ziren. ☐

Koordinazioa erraza izan da Fakultatearekin. ☐

Programak balioa ematen dio erakundeari. ☐

Etorkizuneko edizioetan laguntzaile izaten jarraitu nahiko genuke. ☐

Galdera irekiak

Hartutako ikasleen zer gaitasun nabarmenduko zenituzke?

Zer iradokizun egingo zenituzke programa hobetzeko?